

¡MUTILL PIZKORRA!

Damudeta dizut gaur
 bear zuri eman
 zergatik andregai gabe
 arki omen zeran;
 esango dizut garbi
 zer aditu detan,
 ez dakit egia edo
 gezurra ote dan.

Askotan oi dirazu
 bai zuk neri esan:
 onelako neskacha
 ¡zeñen ederra dan!
 orren senarra nik nai
 nuke betiko izan
 legez ezkondurikan
 Jaunaren elizan.

Ustez zure andrea
 izango zan ori
 gustatu omen zaio
 galaien bateri
 ta bertatik eskatu
 aita ta amari
 andretzat emateko
 alaba berari.

Gauz ori gaur goizean

entzun detanean
 ¡zertristura sartu dan
 nere barrenean!...
 nere lagun bat orla
 arkitzen danean
 pena zabaldutzen da
 nere biotzean.

Gaztetandik orretaz
 ziñan zu gustatu
 ta azkenian bestek
 dizu arrapatu;
 esan zadazu garbi:
 ¿zer zaizu pasatu?...
 egia gaur dirazu
 bear deklaratu.

.

 ¿Zer, ori ere zuri
 altzaizu gertatu?...
 Eziñ det orlakorik
 bada sinistatu.
 Orrenbeste zitzaitzun
 neskacha gustatu
 ta... ¡sekulan berari
 ezer ez aitatu...!!!

ENRIKE ELIZECHEA.